Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

**JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

3983

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 1ekoa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, «Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailea» lanpostua izendapen askearen sistema erabiliz betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.

«Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailea» lanpostua (3435 postua, 1. dotazioa), Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzukoa, hutsik dagoenez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako 2010-2011 urteetako Hitzarmen Kolektiboak (2010eko martxoaren 26ko Ebazpena, maiatzaren 4ko EHAA 81. zk.) 15. artikuluan ezarritakoa betez, lanpostu hori izendapen askearen sistema erabiliz beteko dela iragartzen da. Ebazpen honen eranskinean zehaztuta daude lanpostuaren deskribapena eta hartan jarduteko bete beharrekoak. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Lan Kontratudunen Kolektiboen Hitzarmen Kolektiboaren aplikazio-eremuan sartuta dauden langile finkoek hartu ahal izango dute parte deialdi honetan. Horretarako, eskabidea betetzerakoan, egiaztatu egin beharko dute badutela gutxienez bi urteko antzinatasuna, eta betetzen dituztela, egun indarrean dagoen lanpostuen zerrendarekin bat, ebazpen honen eranskinean zehaztutako eskakizunak. Lanpostuen zerrenda dekretu honen bidez onartua da: martxoaren 23ko 186/1999 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sail eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituzten dekretuak aldatzen dituena.

Bigarrena.– Eskabideak.

Eskabideak aurkezteko, interesdunek hamabost egun balioduneko epea izango dute ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera. Eskabideetan datu pertsonalak eta gaur egun betetzen duten lanpostua jasoko dituzte.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

3983

RESOLUCIÓN de 1 de junio de 2010, de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de trabajo «Coordinador/a Perito de la Comunidad Autónoma».

Estando vacante el puesto de «Coordinador/a Perito de la Comunidad Autónoma», puesto 3435, dotación 1, al servicio de la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo dispuesto en el artículo 15 del Convenio Colectivo de Colectivos Laborales al Servicio de la Administración de la CAE, para los años 2010-2011 (Resolución de 26 de marzo de 2010, BOPV n.º 81, de 4 de mayo), se anuncia la provisión, por el sistema de libre designación, del citado puesto de trabajo, cuya descripción y requisitos necesarios para su desempeño se especifica en el anexo a la presente, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– Condiciones de participación.

Podrá tomar parte en la presente convocatoria, el personal fijo incluido en el ámbito de aplicación del Convenio Colectivo de Colectivos Laborales al Servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que en el momento de hacer la solicitud, acredite una antigüedad mínima de dos años y reúna los requisitos exigidos que, de conformidad con la vigente relación de puestos de trabajo, aprobada por el Decreto 186/1999, de 23 de marzo, de modificación de los Decretos por los que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismo Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma, se especifican en el anexo a esta Resolución.

Segunda.– Solicitudes.

Los/as interesados/as deberán presentar sus solicitudes, en las que harán constar sus datos personales y puesto de trabajo actual, dentro del plazo de quince días hábiles contados a partir de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco

Eskabideak Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariari bidaliko dizkiote. Eskabideei modu hauetakoren batean emango zaie sarrera: Gasteizko, Donostiako edo Bilboko EAT-etako sarrera–erregistroetan aurkeztuta; Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko (Donostia kalea, 1-01010 Vitoria-Gasteiz) erregistro orokorrean aurkeztuta; edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan ezarritako moduan.

Eskabidearekin batera, Curriculum Vitae bat aurkeztu beharko dute hautagaiek eskatzen diren betekizunen eta azaldutako merezimenduen egiaztagiriez gain. Curriculum Vitae-an hauek adieraziko dira:

a) Titulu akademikoak.

b) Betetako lanpostuak, bai administrazioan bai enpresa pribatuan.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak, txostenak, argitalpenak, eta hautagaiek egoki iritzitako gainerako merezimenduak.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariak emandako ebazpen baten bidez ebatziko da deialdi hau. Ebazpen hori gehienez ere hilabeteko epean eman beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Deialdi honetan hautatzen diren pertsonak askatasun osoz kendu ahal izango dira egokitu zaien lanpostutik. Halakorik gertatuz gero, izendapen askeko lanpostua bete aurretik zuten lanbide-kategoriara itzuliko dira; barne-hautaketaz beste lanposturen bat eskuratu badute, berriz, hartara itzuliko dira. Antzinatasunaren ondorioetarako, izendapen askeko lanpostuan egindako denbora langileari dagokion kategorian egindakotzat joko da. Izendapen askeko lanpostuan jarduteak ez du ekarriko ez lanbide-kategoria finkatzea ez hari dagozkion ordainsariak finkatzea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 1a.

Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

Los/as interesados/as dirigirán sus solicitudes a la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal, debiendo tener entrada en el registro de entrada de las EAT´s de Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián o Bilbao, en el registro general del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz, o en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

A la citada solicitud deberán los/as aspirantes adjuntar, además de la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados, un «Curriculum Vitae» en el que harán constar:

a) Títulos académicos.

b) Puestos de trabajo desempeñados, tanto en la Administración Pública como en la Empresa Privada.

c) Estudios y cursos realizados, conocimientos de idiomas, informes, publicaciones, y cuantos méritos estime el/la aspirante oportuno manifestar.

Tercera.– Resolución.

La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución de la Directora de la Oficina Judicial y Fiscal. La citada Resolución se dictará en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Las personas designadas mediante la presente convocatoria, podrán ser cesadas libremente de la misma, pasando en dicho caso a reincorporarse a la categoría profesional que ocupaban con anterioridad a la designación al puesto de libre designación, salvo que por selección interna hubieran obtenido otro, en cuyo caso la reincorporación se producirá en este último. El tiempo de permanencia en el puesto de libre designación se computará a efectos de antigüedad como prestado en la categoría propia del trabajador o de la trabajadora. El desempeño del puesto de libre designación no supondrá consolidación de categoría profesional, ni de las retribuciones correspondientes al mismo.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Ilmo. Sr. Viceconsejero de Justicia en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de junio de 2010.

La Directora de la Oficina Judicial y Fiscal,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.

ERANSKINA

Saila: Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Kudeaketa Atala: Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza

Deialdiko lanpostua:

– Izena: Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailea.

– Lanpostuaren kodea: 3435.

– Dotazioa: 1.

– Hizkuntza-eskakizuna: 4.

– Derrigortasun-data: 2002-03-31.

– Ordainsari-taldea: 11.

– Tokia: Euskal Autonomia Erkidegoa.

Lanpostua betetzeko baldintzak:

– Unibertsitateko diplomaduna.

– Hizkuntza-eskakizuna: 4.a.

ANEXO

Departamento: Justicia y Administración Pública.

Centro Gestor: Dirección de la Oficina Judicial y Fiscal.

Puesto de trabajo convocado:

– Denominación: Coordinador/a perito de la Comunidad Autónoma.

– Código Puesto: 3435.

– Dotación: 1.

– Perfil lingüístico: 4.

– Fecha de preceptividad: 31-03-2002.

– Grupo Retributivo: 11.

– Localización: Comunidad Autónoma Vasca.

Requisitos para su provisión:

– Diplomado/a Universitario/a.

– Perfil Lingüístico: 4.